


ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan zakua lepoan
Ibili beharko dugu aurtengo neguan. Riau ! (bez)

Riau, riau, riau, rikatapi! !

Hau duk umorea utzi alde batera

Euskaldun jendea ! (bez)



Elurra ibarrean makila eskuan
Mendira beharko dugu

Basurdetara joan riau ! (bez)


OLENTZERO

Olentzero pentsatu eguberriari

Guzieri eskaini nasaiki opari

Ez badakizu, zuzen, nori zer ekarri

Begiratu zuk, ere oi, telebixtari.



Eguberri, Eguberri dena kantu dena irri
Herriz herri izan gaiten, bakearen mezulari.

Haur maiteak entzun dut nik zuen galdea

Bainan amestu hura oraikoan badae

Miserian da egun, nun nahi, jendea

Duguna zai, dela neure ordrea.



Eguberri.....

Oparien heltzea, nik ez dut hastio

Zakuetan badut bake eta amodio

Zu ez kezkatu, haurra, ez baitu balio

Ni jin artino erein zazu bozkario.



Hitzak : E Alkhat ---- Aira: B Eyherabide/M Ducau

OLENTZERO BEGI GORRI

Olentzero begi gorri
nun harrapatu duk
arrain hori ?

Ziburu ondoko

arkaitzetan

Bart arratsoko

hamalketan

OLENTZERO

Olentzero jin zauku menditik herrira

Zahar gazte guzieren alegertzera.

Utziz mendian elur

Euri ta haizeak

Aise nahiago ditu supazter pindarraki!

OLENTZERO ! OLENTZERO !

Baionako herria batzaio pollita

Gaur hemen afaltzeko gelditzen omen da:

Esne broskatua du

Horrek bere friko

Eta gaztain erreak ditu maite asko !

OLENTZERO ! OLENTZERO !

Olentzero irri bat beti haurrendako

Bere bizar haunditik baitu aterako !

Eta bere zarpatik

Du berdin botako

Prestu diren haurrentzat onon goxo asko !

OLENTZERO ! OLENTZERO !

Hitzak : Manex Pagola

HATOR HATOR

hator

Hator hator mutil eixera

Gaztainak ximelak jatera

Gabon gaua ospatutzeko

Aitaren eta amaren ondoan

Ikusiko duk aita parrezka

Amaren poza atseginuz.

Eragiok mutil aurreko danbolinari

Gaztainak erre artean (bez)

Txipiti txapla plun !

Gabon gaua pozik igaro daigun.

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu

Mendira lanera

Aizkora zorrotzuta

Ikatz egitera.

Horra, horra !

Gure Olentzero

Pipa hortzetan duela

Eserita dago

Kapoiak ere baditu

Arraultzatxuekin

Bihar askaritzeko

Xahakoarekin.

